

"Begoñako Andra Mari" Irakasleen Unibertsitate Eskolako Liburutegia ikaskuntzarako, irakaskuntzarako, ikerketarako eta eskola osoaren funtzionamenduarekin eta kudeaketarekin lotutako jardueretarako baliabide-zentroa da.

Liburutegiak xede du lanerako behar dituzten informazio-baliabideak eskaintzea ikasle, irakasle eta ikertzaileei, eta orobat, erraztasunak ematea hezkuntzarekin eta irakasle-ikasketetako espezialitate eta aipamen bakoitzarekin lotuta, hautatu, inbentariatu, katalogatu eta sailkatu diren baliabide horiek eskuratu, ezagutu, hedatu eta erabiltzeko.

Liburutegia eraikinaren beheko solairuan dago, irakurtzeko eta ikasteko hainbat gela ditu, eta euskarri ezberdinetan dauden 35.000 liburukiz osatutako funtsa, didaktika orokorraren eta didaktika aplikatuen arloan espezializatuta.

ERAIKINAREN BEHEKO SOLAIRUAN (003 IKASGELA)



Ordutegia:

Astelehenetik ostegunera: 8.30 - 13:30; 14:00 - 16:30

Ostiralean: 8:30 - 15:30

Iraila eta uztaila: 8:30 – 15:30

- Eskolako txartela duten erabiltzaileek etxera eraman ditzakete maileguan hartutako lanak. Erabiltzaileak ezin dio beste inori utzi txartela edo liburutegiko materiala, bera baita material horren arduraduna liburutegira itzuli arte.
- Mailegutik kanpo geratzen dira balio berezia duten liburuak, erreferentziatzko lanak (hiztegiak eta entziklopediak), aldizkariak eta material bereziak.
- Liburutegian areto bi daude, erabilera ezberdinetarako girotuta:
 - IRAKURKETA-GELA
 - IKASKETA-GELA

OPAC (Online public access catalog)

Sareko katalogoa

Liburutegiak duen informazioa eskuragarri dago Absys-en OPACera sarbidea duten mailegu-gunean kokatutako ordenagailu bien bidez.

Eskolako webgunean katalogorako estekak daude, ordenagailutik zein eskuko telefonoetatik sartzeko.

Mailegua

Eskolako txartela duten erabiltzaileek etxera eraman ditzakete maileguan hartutako lanak. Ikasleek bost lanera arte eraman ditzakete, astebeterako gehienez.

<i>Eramateko mailegua</i>	<i>Aleak</i>	<i>Epea</i>	<i>Erreserbak</i>
Ikasleak	5	7	2
Ikasle ohiak	2	7	0
Irakasleak eta AZL	40	90	10

Maileguak Absys BAM programaren bidez egin behar dira. Eskolako webgunean bada esteka bat nola egin azaltzen duen tutorial batera.

Eskatutakoa jasotzeko libre dagoenean, egoeran “Jasota” agertuko da eta leihatilan jasoko da, ikasletxartela aurkeztuta.
Mailegua pertsonala da.

Eguneratzea

Mailegua luzatu nahi izanez gero, posible da epea eguneratzea hura amaitu baino egun bi lehenago, baldin eta beste erabiltzailearen batek eskatu ez badu, edota maileguan daukanak penalizaziorik jaso ez badu.

Ezohiko maileguak

Oporraldian, maileguek ezohiko iraupena izango dute.

Erreserbak

Ikasleek dagoeneko maileguan dauden material bi erreserbatu ahal izango dute gehienez. Materialok itzulitakoan, erreserba bi egunez mantenduko da.

Itzultzea

Liburu bat maileguan hartzen duten erabiltzaileek ezarritako epean itzuli beharko dute.

Justifikatu gabeko atzeratzerik gertatuz gero, mailegatzeko eskubidea galdu egingo da atzerapenaren araberrako epe batez. Gutxienez, bost egun naturaleko isuna izango da atzeratutako egun bakoitzeko. Isuna maileguan hartutako dokumentu bakoitzeko biderkatuko da, eta aparteko neurriak ezarriko dira atzerapen larrien kasuan.

Liburutegiak posta arruntez edo elektronikoz emango dio atzerapenaren berri erabiltzaileari.

Materiala galdu edo hondatuz gero

Mailegu-zerbitzuaren erabiltzaileak dauka hartutako lanekiko erantzukizuna. Lan osoa edo haren parte bat hondatuz gero, galduz gero edo itzuli ezean, hartutako lana ezaugarri bereko beste batekin ordezkatu beharko da, edo haren balioa ordaindu, merkatuan eskuragarri ez balego.

LIBURUTEGIAK LAPURRETEN KONTRAKO SISTEMA DAUKA.
IRTEN AURRETIK, MAILEGUAK EGIAZTATU BEHARRA DAGO.